

Ekainaren 28an, Euskal Herriko Mugimendu Feministatik honakoa adierazi nahiko genuke:

Hasteko eta behin, argiki adierazi nahiko genuke batetik, ekainaren 28a borroka eta aldarrikapen egun bat dela guretzat, oraindik asko baitago egiteko. Hori horrela, esan nahi dugu hainbat eremuetatik (politiko nahiz ekonomikoetatik) Lgtbi+ kolektiboaren merkantilizazioa eta despolitizazioaren aurka gaudela, eta bat egiten dugu, Euskal Herrian, aldarri horri lotuta lanean ari diren kolektiboekin. Nahikoa da! Gure bizitzak ez daude salgai! Bestetik, sexualitatearen dimentsio politikoa aldarrikatzen dugu, “pertsonala politikoa” delako, eta, hortaz, gure harreman sexu-afektiboak gai politikoak direlako.

Bestetik, eta zorionez, gero eta gehiago gara heteroaraua hautsi, eredu dikotomiko zurrunei disidentzia egin eta sexualitatea askatasunez eta plazerez bizitzeko hautua egiten dugunak: lesbianak, transak*, harreman ez monogamoak ditugunak, ama izatea erabakitzen dugun bikote lesbianak, ama izan nahi ez dugun emakumeak*, praktika sexualen kategorizazioari ihes egiteko hautua egiten dugunak... Guztiok, patriarkatuaren oinarria den familia nuklearraren nagusitasuna eta gailentzen den harreman eredu ezbaian jartzen dugu. Baina, horren aurrean, erasoak askotarikoak eta ugariak dira, halere, erasoen bortizkeria maila aldakorra da eta horietan, hainbat aldagaik eragiten dute, besteak beste: klaseak, arrazak, adinak, prekarietateak...

Eraso lesbofobo zein transfoboak nazioartean zein Euskal Herrian gertatzen dira, egunero-egunero. Erasoz horiez jabetzeko ez dugu Londreseko autobusean gertatutako bi bolleraren aurkako erasoari soilik begiratu beharrik (nahiz eta garrantzirik ez diogun kendu nahi), gure herrian, Euskal Herrian, egunero gertatzen dira, bai kalean, bai familian, bai enpleguan, bai instituzio publiko politikoetan... Hori dela eta, aurtengoan, gogor salatu nahiko genituzke, gure herrian, hala lesbianen aurka egon diren erasoak, nola transen aurkakoak, eta bereziki, pasa den

maiatzean, Medeak talde transfeministako gure militante kide eta lagunaren aurka jazotakoa. Gure babesa, maitasuna eta elkartasuna adierazi nahiko genioke berari bereziki, eta, baita beste guztiei ere. Eta adierazi: borroka feministak eta transbollomarikak ez dutela etenik izango denak aske izan arte, gure bizitzek axola dutelako.

Amaitzeko, ekainaren 28an Euskal Herriko herri eta hirietan egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko gonbita luzatzen dugu, erasoen aurrean, autodefentsa feminista, antolaketa eta borroka!

GORA BORROKA FEMINISTA ETA BORROKA TRANSBOLLOMARIKA!!!

EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA

...

Este 28 de junio desde el Movimiento Feminista Euskal Herria queremos expresar lo siguiente:

En primer lugar, queremos dejar claro que para nosotras el 28 de junio es un día de lucha y reivindicación, todavía hay mucho que hacer. Queremos decir esto claro porque estamos en contra de la mercantilización y despolitización que desde algunos sectores (económicos y políticos) se está haciendo del colectivo LGTBI+. Por eso, apoyamos a los colectivos que están trabajando en esa denuncia. ¡Ya es suficiente! ¡Nuestras vidas no están en venta! En segundo lugar, queremos reivindicar la dimensión política de la sexualidad, porque “lo personal es político”, nuestras relaciones sexo-afectivas son un tema político.

Cada vez somos más las que rompemos con la heteronormatividad, disentimos a los rígidos modelos dicotómicos y apostamos por vivir la sexualidad desde el placer y libertad. Lesbianas, trans, poliamorosas, madres lesbianas, las que nos quieren ser madres, ... somos las que hacemos la apuesta por huir de las categorizaciones en las prácticas sexuales. Todxs cuestionamos la supremacía del principal cimiento del

sistema patriarcal: la familia nuclear. Mientras tanto, sin embargo, las agresiones son heterogéneas y de muchos tipos y están atravesadas por otras variables como la clase, el origen, la edad, la precariedad, ...

Las agresiones lesbóforas y tránsforas suceden cotidianamente tanto a nivel internacional como en Euskal Herria. Para darse cuenta de ello no es solo necesario (aunque no queremos quitarle la importancia que tiene) mirar hacia la agresión que dos bolleras sufrieron en un autobús de Londres. En Euskal Herria pasan a diario: en la calle, en la familia, en el trabajo, en las instituciones públicas, ... Por eso, en este año queremos denunciar con vehemencia las agresiones que se han dado tanto contra las lesbianas como contra lxs trans, y, especialmente, la agresión transfora que nuestrx compañera y amigx del colectivo transfeminista Medeak sufrió el pasado mes de mayo. Queremos transmitirle nuestro apoyo y cariño, que hacemos extensibles al resto.

La lucha feminista y trasnbollomari no parará hasta que todxs seamos libres, porque nuestras vidas importan.

Para finalizar, animamos a participar en las movilizaciones que se hayan organizado en cada pueblo y ciudad en el marco del 28 de junio. Frente a las agresiones, autodefensa transfeminista, autorganización y lucha.

GORA BORROKA FEMINISTA ETA TRANSBOLLOMARIKA!!

MOVIMIENTO FEMINISTA DE EUSKAL HERRIA